

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2010eko uztailaren 14an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

3.- ZARRAGOITXIKO ARGITERIA BARRIZTETAKO OBRA KONTRATUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Xedea

Zarragoitxiko argiteria barriztetako obra kontratua behin-behinekoz esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2010eko maiatzaren 19an Tokiko Gobernu Batzarrak Zarragoitxiko argiteria barriztetako proiektua eta administrazio baldintza zehatzen orria onartzea erabagi eban.

Bigarrena: Aitatutako kontratazio-prozesura bi parte-hartzaile aurkeztu dira:

- Tecuni SA
- Elekrika Basterretxea SL

Argudioak

Bakarra: 2010eko garagarriaren 13an emondako txosten teknikoaren arabera, hauxe izan da eskaintza bakotzak lortutako puntuazioa:

Eskaintzak	Bakotxaren prezioak eurotan, BEZa kanpo (aurrekontua: 183.254,68)	Proposamen ekonomikoa 0-80	Obra egiteko epea 0-20 (hilebete)	Guztira
JOSE LUIS BASTERRETXE A	138.914,48	49,2	20 (hilebete)	69,2
TECUNI	136.488,09	51,9	10 (hilebete eta aste bat)	61,9

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Zarragoitxiko argiteria barriztetako obra kontratua behin-behinekoz Elekrika Basterretxea SL enpreseari esleitzea, 138.914,48 euroan (BEZ barik).

BIGARRENA: Elekrika Basterretxea SLri jakinarazotea, behin-behineko esleipenaren iragarkia kontratugilearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 15 eguneko epean, konpultsau barik daukazan agiriak (halan izatekotan) konpultsau beharko dauzala eta behin betiko bermea jarri beharko dauela, eta, holan egin ezean, behin-behineko esleipena bertan behera geratuko dala.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2010eko uztailaren 16an.

ONETSIA
ALKATEA